



UDALARI ZUZENDURIKO EKARPENAK AGENDA 21

Eta azkenik, herrian sumatu ditugun arazoak konpontzeko hainbat proposamen luzatu nahi dizkizuegu.

ZARATAREN INGURUAN:

- **Autobidean panelak jartzea trafikoko zarata gutxitzeko.**
 - Autobidea eta saihesbidea Foru Aldundiaren ardura dira. Beraiek jartzen dituzte zarata gutxitzeko panelak, beharren eta aurrekontuaren arabera. Gipuzkoa guztiko errepideak aztertuta dituzte, eta urtero errepide “zatitxoak” hobetuz joaten dira.
- **Eskola aurreko trafikoa desbideratzea. Pibote automatikoak ipini ez pasatzeko eta kale hau oinezkoentzat jarri.**
 - Santakurtz kalea hobetzeko, Udalak Hornikuntza eta Saneamendurako Plan Berezi bat dauka idatzita. Plan horren arabera, Santakurtz kalea oinezkoentzat ez da aurreikusten, baina askoz ere espaloi zabalagoak egingo dira eta eskola aurreko zatia autoendako abiadura moteleko gunea bihurtuko da
- **Eskola aurretik pasatzen den kalea garbitzeko makina beste ordu batean pasatzea. Goizetan pasatzen da, gelan gaudenean eta ateratzen duen zaratak asko molestatzen digu.**
 - Kale garbiketa ordutegia ahalik eta gutxien molestatzeko pentsatuta dago. Goizago pasatuz gero, jendea etxean edo lo harrapatuko luke, eta arratsaldetan jendea kalean dabilenez arazoak sortuko lituzke.
- **Jaietan musika baxuago jarri araztea.**
 - Zarata zer ikusirik handia dauka musika taldearen arabera. Udalean ez dago ordenantzarik jaietan musika baxuago jartzekoa arautzen duena.
- **Bizikletaren erabilera bultzatu. Bizikletak alokatzeko puntuak jarri daitezke Urkulun, bidegorrian...**

- 2009an “Bizikleta eta giltzarrapo elektronikoen alokairurako sistema bateratuaren proposamena Gipuzkoan” ikerketa egin zen bizikletaren erabilera bultzatzeko asmoz.
Ikerketa honetan Aretxabaletako Udalak ,Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mondragon Unibertsitateak parte hartu zuten.
Inbertsio handiko proiektua zen. Saiatu ginen diru-laguntzarik lortzen baina azkenean ez genuenez lortu ezin izan genuen martxan jarri.

ARGI KUTSADURAREN INGURUAN:

- **Kaleko argiterian aldaketa handiak sumatu ditugu. Hala ere, kalean jendeari galdetuz gero, batzuei argitasun gehiegi ematen duten farolek besteei gutxiegi ematen dutela iruditzen zaie, adibidez bidegorrian, bariantearen inguruan... Zertan oinarritzen zarete kale batean egon behar duen argitasuna eta farola mota erabakitzeko?**
 - Argi gehiegi edo gutxiegi egotearena oso pertzepzio subjektiboa da. 2010ean argiteriaren auditoria bat egin zuen Udalak, informazio objektibo bat eduki ahal izateko. Auditoria horrek udalerriko argiteriaren egoera jasotzen du, zonaldeka banatuta. Hori litzake hartu beharreko erabakiak hartzeko oinarritzko dokumentua. Dena dela, dokumentu hori osatzeke dago, eta ez dira han jasotako ekintza guztiak martxan jarri.
 - Bestalde, farolak aukeratzeko garaian, aldatu beharreko farolak kontsumo baxuko sistemekin jarri dira azken urteetan, ahalik eta energia gehien aurreztu ahal izateko.
- **Ba al dago aukerarik farolak behar duen elektrizitatea eguzki energiaren lortzeko?**
 - Merkatuan badaude eguzki energiaren dabilizan hainbat farola eredu. Baina gaur egun, jada herrian zehar instalazio guztia eginda, merkeago da daukaguna mantentzea. Dena dela, herri-lurretik aldentutako guneetan jartzea aztertu liteke eta Hirigintzako departamendura bidaliko dugu zuen iradokizuna.

Uhin Elektromagnetikoen Inguruan:

- Uhin elektromagnetikoei buruzko informazioa zabaltzea (hitzaldiak, foiletokak...).

- Ikusirik aurten eskolan landutako gai bat zela, Aste Berdearen programa barruan, ekainaren 16an, espresuki "Elektromagnetismoa eta Osasuna hitzaldia antolatu genuen. Informazioa eskola bertan, Arkupeko web orrian, Goienkarian, prentsan.....zabaltu genuen ohitura den lez.

<http://www.aretxabaleta.com/eu/aktualitatea/agenda/aste-berdea-2011celektromagnetismoa-eta-osasuna2011d-hitzaldia>

<http://www.arkupe.eu/images/programazioa/aurrekoak/2011-06.pdf>

- Prebentzio neurriak hartzea, ahal den neurrian uhin kantitatea murriztuz.

- Telefono mugikorrek, sukaldeetako mikrouhinak, wifi-a.... hau da, uhinak dituzten aparatuak toki askotan daude gaur egun. Txosten ezberdinak daude uhin elektromagnetikoen ondorioei buruzkoak. Batzuk aldekoak dira beste batzuk berriz kontrakoak. Dena dela, Aretxabaletara etorri zen Asier Arregik esan zuen bezala dosia neurtzea neurri interesgarria da, adibidez, uhinak murrizteko ondo legoke wifi-a erabili beharrean kabledun aparatuak erabiltzea, telefonoz denbora asko hitz egin behar badugu, poltsikoko telefonoa erabili beharrean, hariko telefonoa erabiltzea, etab.

- Wifi ordez kablea bultzatzea leku publikoetan.

- Aretxabaletak duen wifi puntu bakarra Arkupe kultura-etxea da. Orain kultura-etxeko puntu ezberdinetan wifi-a kendu eta kablea sartzeak obrak egitea eta kostea suposatuko luke. Beste aukera bat, besterik gabe wifi-a kentzea litzateke... baina horrela bertako ordenagailuek bakarrik edukiko lukete interneterako sarrera.

- **Antenak, transformadoreak, tentsio dorreen kokapena kontrolatzeko arautegia, edo udal ordenantza egitea.**
 - Gaur egun arautegi bat dago esaten duena non joan behar diren kokatuta antenak tentsio dorreak etab. Beraz eraikuntza berri bat egiterakoan proiektuan bertan kokapena azaltzea ezinbestekoa da.

Eta amaitzeko, gaiarekin lotura zuzena ez badu ere, gure patioko egoera zikina erakutsi nahi genizueke, uxoen kakaz beteta egoten baita. Ezin al da ezer egin uxook bertara ez sartzeko?

- Usoen kontrako neurriak hartu dira dagoeneko, enpresa bat kontratatu da herritik ahalik eta uso gehien kendu ahal izateko. Ala eta guztiz ere, egia da oraindik sekulako arazoak sortzen dituztela, zuen patioan, frontoian eta herriko beste hainbat tokitan. Egoera berraztertu beharko du Udalak, ze neurri hartu erabaki ahal izateko.

Eskerrik asko zuei, zuen galderak eta hausnarketak Udalari luzatzearren eta horrela elkarrekin Aretxabaleta jasangarriago baten alde lan egitearren.